

Meneako San Joanen hondakinei buruz

Inguru horretan kokatu behar zen antzinako Menea herria, nahiz eta kokapen zehatzik ez izan. Izen hau Erdi Aroko hainbat dokumentutan aipatzen da, baita baseliza ere, San Juani eskainia. Hala ere, arkeologiari dagokionez, gaur egun ez da aurkitu horien arrastorik. Orain Meneako mortuorioa da.

Hala ere, mendetan abandonatu ondorengo ahanzturaren ondorioz marjinala izan zitekeen espazio horrek ustekabeko garrantzia hartu zuen Gerra Zibilean eta bereziki Villarrealeko Batailan. 1936ko abenduaren lehen egunetan, Eusko Gudarosteko milaka gudarik aurrera egin zuten, ez arazorik gabe, Nafarratera iristeko asmoz. Izan ere, hau izan zen bataila osoaren hegoalderago zegoen frontea.

Indarkeriaren iragan horren isla gisa, espazio hori osatzen duten hiru muinoek lubakiek lurrian utzitako orbainak erakusten dituzte. Gainera, bidearen ezker aldean bi metrailadore-gune ikus litezke, harriz eraikiak eta txiki baina aldapa nabarmen batean kokatuak. Biak ipar-ekialdera begira daude, Elosura, eta bertatik aurrera egin zuten batailoi errepublikarrek 1936ko azaroa eta abendua bitartean.

Josu Santamarina Otaola

MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK ZIGOITIAN

(2019/02/07) FRONTE FRANKISTA (1936-1937)